

Ordizian, 2010ko maiatzaren 28an, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea

BERTARATU EZ DIRENAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea PNV taldea

BIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi Jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUTAKOAK ETA EZIN ETORRIAK

Manrique jauna 3. puntuan etorri da.



AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI ZERRENDA:

- 1.-2010eko apirilaren 30ean egindako Osoko Bilkurako akta onartzea
..... 3. orr.
- 2.- Ordizia Lantzen SAri Udalak egindako abala, San Joan eremuko jabeen kontratuen ingurukoa.
..... 4. orr.
- 3.- Jasangarritasunaren aldeko konpromezuari atxikitzea. Udal Sarea 21 "jasangarritasuna lortzeko euskal udal sarea"
..... 7. orr.
- 4.- Zerga desberdinetarako diru-laguntzen araudia aldatzea.
..... 9. orr.
- 5.- GOIEKI SAri dagokion 2009ko galera eta irabazien akten memoria eta balantzea onartzea.
..... 11. orr.
- 6.- GOIEKI SAko Administrazio Batzordeko ordezkari berria izendatzea.
..... 14. orr.
- 7.- Borondatezko lankideari diru-laguntza (Iparra-Hegoa programa)
..... 15. orr.
- 8.- Carlos Gonzalez Astiz zinegotzi berriaren ordezkari Udalaren Erakunde eta Batzordeetan.
..... 17. orr.
- 9.- Gizarte Ongizate Sailaren izena aldatzea.
..... 19. orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

- .- Erdi Aroko Azokan arku-tiroa animalien irudiekin egitea.
- .- Zerbitzu publikoen pribatizazioa.
- .- IU-EB/ARALAR aurkeztutako mozioa anbulatorioa larunbat goizetan ixteari buruzkoa.
..... 21. orr.

ORDUTEGIA:

HASIERA ORDUA: 8,05

BUKAERA ORDUA: 10,20



Ohiko bilkura hasi aurretik, Idazkari andreak jakinarazi du apirilaren 30ean izandako ohiko bilkuran, "kale izendegia aldatzeko proposamena" onartu zela, eta proposamenean azaltzen den kale bat Jose Joaquín Arteaga kalea idatzita azaltzen dela, baina Joaquín José Arteaga dela. Garrantzia handirik gabeko akatsa da eta bere ustez, aldatzeko ez da akordio proposamen berririk behar.

Akatsaren berri eman du eta besterik gabe zuzenketak egingo dira.

Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman du Batzordeburuak

1.-2010eko apirilaren 30an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea

Proposamena

2010eko apirilaren 30an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzailea

Jakinarazi du euskaraz dagoen aktan, 2. puntuan "2009ko aurrekontuko likidazioen berri ematea" puntuan, akats batzuk daudela, beharbada zenbait hitz eta gai tekniko batzuk ez direlako behar bezala ulertu.

Zuzenketak idatzita aurkeztuko dituela jakinarazi du, aktan akatsak zuzentzeko.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

2.- Ordizia Lantzen SAri Udalak egindako abala, San Joan eremuko jabeen kontratuen ingurukoa.

Proposamena

ORDIZIA LANTZEN SA Udal Elkarteak, eta Ordiziako "San Juan" AIU 22n lurak eroste aldera, trukaketarako kontratuak izenpetuko ditu. Aipatu eremuan lursail eraikigarriak eskuratzearen truke, bertan eraikiko diren etxebizitzak eta eranskinak entregatuko ditu.

Egingo diren trukaketa-kontratuak honako hauek izango dira:

1) Honako hauekin:

Josefina Beracoechea Jauregui and.
Maria Milagros Múgica Beracoechea and.
Jesús Múgica Beracoechea jn.
Maria Isabel Múgica Beracoechea and.

ORDIZIA LANTZEN SAK honako lursailok bereganatuko ditu:

% 100	a.20.2/1 lursaila	8 etxebizitza libre	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.150 m ²
% 16,48	a.30.6 lursaila	5 etxebizitza / Garapen baxua	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 765 m ²
% 59,06	a.30.7 lursaila	6 etxebizitza / Garapen baxua	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 920 m ²
% 100	a.40.3 lursaila	25 BOE eta lokal komertzialak	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 2.850 m ² eta 520 m ² merkataritza- azalera
% 29,16	a.40.7/4 lursaila	10 BOE	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.124 m ²

Lursail horien ordainetan, ORDIZIA LANTZEN SAK 4 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak emango ditu, eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako AIU.22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean (garapen baxuko bizileku tipologiakoa), lurzoru gaineko 613,33 m² eraikigarriak.

Trukaketaren balioa izango da: bi milioi hogeita hamabi mili zazpiehun eta berrogeita hamahiru euro eta hemeretzi xentimo (2.032.753,19 €).



2) Honako hauekin:

Luis Ceberio Sarasola jn.
Ramon Ceberio Sarasola jn.

ORDIZIA LANTZEN SAK honako lursailok bereganatuko ditu:

% 28,49	a.20.2/3 lursaila	8 etxebizitza libre	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.150 m ²
% 15,60	a.30.3 lursaila	5 etxebizitza / Garapen baxua	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.150 m ² 765 m ²
% 16,05	a.40.6/1 lursaila	50 BOE	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 5.400 m ²

Lursail horien ordainetan, eta Ceberio-Enea eraisteagatiko kalte-ordainetan (Birpartzelazio Proiektuan adostutakoaren arabera, 146.324,64 €), ORDIZIA LANTZEN SAK 2 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak emango ditu, eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako AIU.22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean (garapen baxuko bizileku tipologiakoa), lurzoru gaineko 306,66 m² eraikigarriak. Ceberio Sarasola anaiek 197.715,18 € emango dizkiote ORDIZIA LANTZEN SARI etxebizitzak jasotzerakoan.

Trukaketaren balioa izango da: zazpiehun eta hogeita bi mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta laurogeita bi xentimo (722.384,82 €).

Trukaketa bermatze aldera, jabeek Ordiziako Udalaren abala eskatu diote ORDIZIA LANTZEN SARI; horrenbestez, honako akordioak hartzea proposatu da:

1) Ordiziako Udalak bi milioi hogeita hamabi mili zazpiehun eta berrogeita hamahiru euro eta hemeretzi xentimoko (2.032.753,19 €) kopuruaren ordainketa bermatzen die honako hauei:

Josefina Beracoechea Jauregui and.
Maria Milagros Múgica Beracoechea and.
Jesús Múgica Beracoechea jn.
Maria Isabel Múgica Beracoechea and.

baldin eta, 2012ko abenduaren 31n ORDIZIA LANTZEN SAK 4 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak (eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako AIU.22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean kokatuak) entregatzeko obligazioa beteko ez balu.

Bermea solidarioki emango da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio eta banaketa onurari berariaz uko eginez.



Ordiziako Udalak abal hori ordainduko du, notarioaren bitartez, Ordiziako Udaletxearen helbidean, adierazitako gehieneko kopururaino abalaren onuradunak egindako errekerimenduaren aurrean, abalaren balio-dataren barruan, eta bermatutako obligazioa bete dela egiaztatuko du.

Abal hau iraungiko eta indargabetuko da 2012ko abenduaren 31n, eta ezin izango zaio Udalari ezein kopuru exijitu horri jarraiki.

2) Ordiziako Udalak gehienez ere zazpiehun eta hogeita bi mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta laurogeita bi xentimo (722.384,82 €) ordaintzea bermatuko du:

Luis Ceberio Sarasola jaunari
Ramon Ceberio Sarasola jaunari

baldin eta, 2012ko abenduaren 31n ORDIZIA LANTZEN SAK 2 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak (eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako AIU.22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean kokatuak) entregatzeko obligazioa beteko ez balu.

Bermea solidarioki emango da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio eta banaketa onurari berariaz uko eginez.

Ordiziako Udalak abal hori ordainduko du, notarioaren bitartez, Ordiziako Udaletxearen helbidean, adierazitako gehieneko kopururaino abalaren onuradunak egindako errekerimenduaren aurrean, abalaren balio-dataren barruan, eta bermatutako obligazioa bete dela egiaztatuko du.

Abal hau iraungiko eta indargabetuko da 2012ko abenduaren 31n, eta ezin izango zaio Udalari ezein kopuru exijitu abalean jasotakoari jarraiki.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Laburki azaldu ditu jabeekin egingo diren trukaketak.

Idazkari andrea

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean proposamenerako zenbait punturen inguruan atera ziren zenbait zalantza aurrean, proposamenera zenbait aldaketa egon direla azaldu du idazkariak, jabeekin sinatu behar den kontratuaren eta kalitate Txostenaren erreferentzia azaltzen dela bertan, eta zinegotziei banatu zaizkiela bi agiriak, aztertu ditzaten.



Puntu hauek gaia argitzen laguntzen badute ere, zenbait zalantza geratu dira, adibidez "jabeek ez badute inongo erreklamaziorik egiten" esaldia.

Hori guztia ikusita eta hemendik gutxira Ordizia Lantzen SAREN Administrazioa Batzordea egingo denez, Alkate jaunak puntua hurrengo osoko bilkurarako uztea proposatu du, Administrazio Batzordean argitzen den informazioa lortu eta gero.

Kontu-hartzailea

Bere iritziz garrantzitsua iruditzen zaio lursailak nola baloratu dituzten jakitea, trukaketa egin ahal izateko.

Horrekin batera etxebizitzak emateko data 2012ko ekaina eta uztailea dela ipintzen du.

Dubreuil jauna

Prozedura logikoa jarraitu behar dela uste du, hau da, lehenik informazioa lortu behar da eta ondoren onartu behar da, gainera akordioak duen garrantzia kontuan izan behar da.

- Akordioa atzeratzea bozkatu da:

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak, ondorioz, hurrengo osoko bilkuran aztertzeko puntua ATZERATZEA onartu du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- Jasangarritasunaren aldeko konpromezuari atxikitzea.

Proposamena

Ordiziako Udalak Aalborg-eko ituna sinatu du, eta udalerrian Tokiko Agenda 21 programa martxan jartzeko konpromisoa hartu du.

Hala, Tokiko konpromisoaren bidez iraunkortasun globalaren alde egiteko etengabeko hobekuntza-prozesua jarri du abian. Eginkizun horretan, udaletako Tokiko Agenda 21ak indartzea helburu duen sareko bide izateak dakartzan onurak azpimarratzen ditu Udalak.



Hori dela eta maiatzaren 19ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin Ordiziako Udalak honakoa onartzea proposatzen du:

AKORDIO PROIEKTUA

Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko Jasangarritasunaren aldeko konpromisoari atxikitzea; UDALSAREA 21a sendotzea (Jasangarritasuneranzko Udalen Euskal sarea), hortik eratortzen diren erantzukizunak hartuz.

Alkate-Lehendakariari Udal honen izenean beharrezkoak diren agiriak sinatzeko eskumena ematea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Jakinarazi du ia udalerrri guztiek egin dutela bat hitzarmenarekin.

Asenjo jauna

Prozedura formal bat dela jakinarazi du eta sinatzeak ez diola Udalari inongo arazorik ekarriko. Honen inguruan duen kexa bakarra proposamena gazteleraz jaso izana da.

Idazkari andrea

Barkatzeko eskatu du. Arrazoia eman dio baina asteartean funtzionarioen greba izan zela azaldu dio eta asteazkenean deialdia bidali zen baina oraindik osoko bilkurarako proposamenak prestatzen ari ziren eta oraindik batzuk itzuli gabe zeuden. Hala ere, unean bertan euskarazko proposamena banatu die zinegotzi guztiei, eta horrekin batera deialdia egin zenean gaztelera hutsean zeuden beste bi proposamen banatu ditu, geroztik itzuli direnak.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2, PP1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Zerga desberdinetarako diru-laguntzen araudia aldatzea.

Poposamena

1992ko irailaren 8an udal zerbitzuak edo zergak eta oinarrizko zerbitzu pribatuak ordaintzeko diru-laguntzen programa arautzen duen Ordenantza onartu zen.

Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntzen lege araubide juridikoa azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorrak arautzen du.

Aipatutako Legearen 17.2 artikulua zehazten du tokiko erakundeetako diru-laguntzen oinarri arautzaileak ordenantza baten bidez onartu behar direla.

Gizarte Ongizate Sailak Ordenantza aldatzeko proposamena egin du, eta proposatutako aldaketak erantsitako txostenean daude.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua arabera, Udalaren Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak onartzea.

49 artikuluan zehazten dena aintzat hartuta, tokiko Ordenantzen onarpena eta aldaketak ondorengo prozedurara egokituko dira:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena.
- b) Jendaurreko informazioa eta interesatuei entzunak izateko hogeita hamar eguneko epea ipintzea, erreglamazioak eta iradokizunak aurkezteko.
- c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena eta osoko bilkurak behin betiko onartzea.

Inork erreklamaziorik edo iradokizunik egingo ez balu, behin-behineko akordioa behin betiko izatera pasako da.

Azaldutakoa ikusirik, honakoa proposatzen da:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

1.-Udal zerbitzu edo zergak ordaintzeko edo oinarrizko zerbitzu pribatuak ordaintzeko laguntza ekonomikoen programa arautzen duen Ordenantzaren aldeketari hasierako onarpena ematea, I



eranskineko 2,5,6 artikuluetako aldaketak, eta Ordenantzaren izenburua bera aldatzea erantsitako txostenean azaltzen den bezala.

2. Araudia jendaurrean jartzea, iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 30 eguneko epean, eta interesdunei erreklamazioak eta iradokizunak entzutea; horiek udalbatzak ebatziko ditu. Erreklamaziorik ez balego, ordenantza behin betikoz onartutzat joko litzateke, beste akordiorik behar izan gabe.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Ordenantza onuradun gehiagorengana iristeko aldatu dela jakinarazi du.

Dubreuil jauna

Familiei idatzi bat banatuko zaiela jakinarazi du eta horrekin batera informazioa webgunean ipiniko dela esan du, herritarrek aldaketen berri izan dezaten, eta gaur egun dituen onuradunen kopurua bikoiztea espero du.

Hala ere, krisi garai honetan, bere garaian egindako azterketarekin alderatuta onuradunen kopurua handiagoa izan daitekeela pentsatzen du.

Gonzalez jaunak

Hiru kide baino gehiagoko unitateek eta familiek jasotzen duten tratamendua ez zaio justua iruditzen, hau da, baremoa ez aldatzea ez zaio justua iruditzen, 3 edo 6 kideren bizikidetzaren tratamendua bera izatea.

Dubreuil jauna

Erantzun dio esanez 3 kide edo 3 kide baino gehiagoko unitateek bizitzeko gutxieneko diru-sarrera batzuk bermatzen zaizkiela, diru-sarrera eta zerbitzu batzuekin.

Leunda jauna

Diru-laguntza zein zergetarako jasotzen duten galdetu du.

Dubreuil jauna

Ura, zaborra, Majoriko zerbitzuak eta besteren bat ez ote dagoen, hori erantzun dio.



Leunda jauna

Hurtzaindegi zerbitzuko gastua diruz laguntzen den galdetu du.

Azaldu du aldaketan "familia unitate bat baino gehiagok ezin izango dute diru-laguntza jaso" ipintzen duela, eta horrek ez duela Majoriko prezioentzako balio.

Dubreuil jauna

Normalena 2 txartel ateratzea eta hobaria ematea dela uste du, edo familia txartel bat ateratzea eta hobariak eskatzea.

Gaia gehiago argitu beharko dela azaldu du, baina hala ere Dubreuil jaunak azaldu du kasu zehatz batzuk izaten direla, araua aplikatzen dela baina horrekin batera arauaren "izaera, muina" ere kontuan hartzen dela.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzeko eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2, IU/EB-ARALAR 2, PP1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- GOIEKI SARI dagokion 2009ko galera eta irabazien akten memoria eta balantzea onartzea.

Proposamena

GOIEKI SAK 2009 urteko ekitaldiko ikuskaritza txostena aurkeztu du 2010eko maiatzaren 28ko Batzorde Orokorrean aztertu eta onartzeko, eta horren berri ematen da.

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko erabakiarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

GOIEKI SARI dagokion 2009ko galera eta irabazien akten memoria eta balantzea onartzea.



Alkate-Lehendakariari Udalaren ordezkari gisa aldeko bozka emateko eskumena eman.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Urteroko gai formala dela jakinarazi du, osoko bilkuran onartzen dela urtero eta gero Goiekiko hurrengo Batzorde Orokorrean onartu behar dela, ekainaren 28an.

Asenjo jauna

EA baztertuta eta zokoratua dagoela uste du eta beti zokoratua egon dela pentsatzen du, eta beraz bozketan abstenitu egingo da.

Alkate jauna

Goiekin bo ordezkari daudela adierazi du, Dubreuil jauna eta Gonzalez jauna ohiko bilkura honetan izendatuko dutela ordezkari gisa, eta bera, Alkatea, joaten dela baina ez duela botorik.

Asenjo jauna

Adierazi du bera ez dagoela Gonzalez jauna Goiekiko ordezkari izateraren kontra, baina bere ustez talde politiko guztiek egon behar dute eta beraiek ez daude eta ez dira inoiz egon.

Badaki EA kanpoan egoteko apostu politiko bat egon dela eta badaki apostu politiko hori Beasaindik datorrela eta horren kontra dagoela azaldu nahi izan du.

Alkate jauna

Joateko gonbidapena egin die, informazioa lortzera joan daitezke eta horrez gainera kontuan har daitezkeen ekarpenak ere egin ditzakete.

Dubreuil jauna

Asenjo jaunari erantzun dio esanez Goieki Goierriko Udalen eskualdeko foro bat dela. Guztiek dute ordezkari bat, eta hain zuzen ere, alderdi politikoen ordezkarien foro bat izatea saihestu nahi zuten. Horrekin batera Goiekin ordezkari handia izaten saiatu dira baina hori Udal bakoitzaren kontua da.

Bera ez doa PSOeko ordezkari gisa, Ordiziako ordezkari gisa baizik.



Asenjo jauna

Horrekin ados dagoela esan du baina Goekiko ordezkariak Beasaingo negoziazio politiko baten emaitza izan dela adierazi du. Legezkoa izan daiteke, legitimoa, baina bere ustez ez da demokratikoa. Irekiagoa izan zitekeela uste du.

Goiekiko webgunean sartuz gero, 5. puntuaren alderdi politiko guztiak daudela esaten dute, horien artean EA dagoela, eta Dubreuil jaunari eskatu dio mesedez EAko ordezkariak dagoela webgunetik kentzeko.

Dubreuil jauna

Udalen partaidetza erakunde bat dela errepikatu dio eta ez dela alderdi politikoena.

Asenjo jauna

Jakinarazi dio Goiekin ez dagoela eta ez dela inoiz EAko hautetsirik egon, eta Goiekin ohikoa dela iluntasuna, gardentasun eza, eta hau erdipublikoa den erakunde baterako oso larria iruditzen zaio.

Dubreuil jauna

Iluntasun eta gardentasun eza egozten duten salaketak iruditu zaizkio larriak. Kontuak argiak dira eta erabakiak adostutakoak dira. Beste gauza bat da Udal bakoitzak horren berri nola ematen duen. Dubreuil jaunari larriak iruditu zaizkio Asenjo jaunaren salaketak.

Gonzalez jaunak

Bere taldeak ez du bozkatuko, edo abstenitu egingo da, orain arte ez dutelako elkartean parte hartu.

Jakinarazi du bere garaian berak ulertu zuela gobernuko ordezkari bat eta oposizioko bat egongo zirela.

Dubreuil jauna

Hori ez dela horrela esan dio.

Webgunean aurkezpen txarra egoteagatik gardentasun eza egoztean tontakeria iruditzen zaio.

Leunda jauna

Goiekin Aralar noiz egongo den galdetu du.

Alkate jauna

Alkate jaunak bere "umore ona" eskertu dio.



Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3PP 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

EZ DUTE BOZKATU: 4 (EA 2, IU-EB/Aralar 2)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- GOIEKI SAko Administrazio Batzordeko ordezkari berria izendatzea.

Proposamena

Maiatzaren 3ko GOIEKI SAko Administrazio Batzordean Maialen Galparsoro Odrioloza Udal ordezkariaren dimisioa onartu zen eta akziodunen Batzorde orokorrean Carlos Gonzalez Astiz Udal ordezkari izendatzea proposatu zen.

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko erabakiarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

Carlos Gonzalez Astiz Goiekiko Administrazio Batzordeko Ordiziako Udaleko ordezkari izendatzea onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkari andrea

Jakinarazi du Maialen Galparsoro andrearen ordezkariak Gonzalez Astiz jaunak hartu zuela EB/Aralar koalizioko zinegotzi kargua, eta orain Goieki SAko Ordiziako ordezkari izendatzea proposatzen dutela.



Asenjo jauna

Bere taldea abstenitu egingo dela adierazi du, Gonzalez jaunaren kontra ez duela ezer esan du, baina aurreko puntuan aipatutako erakundearen EAren ordezkari buruz esandakoagatik abstenituko dira.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV3, PSE-EE (PSOE) 3, IU-EB/Aralar 2, PP1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (EA 2)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.-Borondatezko lankideari diru-laguntza (Iparra-Hegoa programa)

Proposamena

Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Ordiziako gazteei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen araudia jarraituz eta 2010 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, azaroaren 30era arte irekita zegoena, apirilean eskaera bakarra aurkeztu da. Erabiltzeko moduan dagoen aurrekontu partida pertsonako 1.500 eurokoa da.

Eskaera aztertu ondoren eta 2010eko apirilaren 19ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Rosa Agundez Castillo gazte kooperante Ordiziarrari 1265,18 euro dirulaguntza ematea eta onartzea gizarte hezitzaile bezala laguntzeko SETEM erakundearekin Hego Haizea Chiapasen (Mexiko), " Emakume artisauen kooperatiba indartzeko Jolom Mayetik II" proiektuan.

2.- 1.500 euroko diru-laguntza onartzea eta GARAZI ROMERO VALLEJO* gazte ordiziarrari ematea, kooperante gisa Paraguayko Karaimí herrian, Asociación Justicia y Libertad MADRE TIERRA izeneko erakundearekin aritzeko, 'Madre Tierra granja-escuela y dispensario médico y odontológico rural, para la rehabilitación de niños en situación de calle en Asunción y niños del campo en estado de extrema pobreza y vulnerabilidad' proiektuan.



***Garazi Romerok 2010eko otsailean bete zituen 20 urte. Kooperazioaren ordenantzak eskatzaileak eskaera egiten duen urteko urtarrilaren 1erako 20 urte beteta izan behar dituela badio ere, kontutan izanda eskatzailearen interesa, eskatutako adina baduela eskaera egiteko datan, aurrekontua badagoela, eta Ordiziako Udalaren borondatea herriko gazteen artean solidaritatearen balorea sustatzea dela, diru-laguntza onartzea proposatzen da.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna

Aurkeztu dituzten eskaerak eta proiektuak azaldu ditu. Ordiziako gazteen kooperazioa sustatu eta bultzatzea Araudiko neurri bat dela jakinarazi du.

Gonzalez jaunak

Bere taldeak proposamenaren alde bozkatuko duela jakinarazi du baina kooperaziorako diru-laguntza guztiak osoko bilkurara ekartzeko eskatu du.

Alkate jauna

Berak oso argi dagoela uste du, eta kooperaziorako laguntzak zuzenean Alkatetzaren menpe badaude ere, proposamenak salbuespenik gabe osoko bilkuran aztertzen direla esan du, larrialdietakoak izan ezik (adibidez aurtien Haitikoak) eta Filipinak eta Mexikokoak izan ezik, aldez aurretik hitzarmen bat dagoelako.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, IU/EB-ARALAR 2, PP1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Maiza andrea

Proposamenaren alde badago ere aste beteko kooperazioa oso motza iruditzen zaiola adierazi du.

Alkate jauna

Aurreko osoko bilkuran diruz laguntzea erabaki zen boluntarioaren kooperazio-lana azkenean 3 astekoa izan zela jakinarazi du.

Maiza andrea

Bere ustez borondatezko lankideek gutxienez uda osoan aritu beharko lukete.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

S.- Carlos Gonzalez Astiz zinegotzi berriaren ordezkari Udalaren Erakunde eta Batzardeetan.

Proposamena

2009ko urriaren 22an, Galparsoro andreak bere karguari uko eginda, osoko bilkurak erabaki zuen Mikel Leunda jauna izendatzea, koalizioko zinegotzi bakarra izanik, azken hori ordezkatzeko bozeramaile gisa zinegotzia ordezkatu bitartean, baita Udalaren mendekoak diren batzorde eta organo edo sozietateetan ere.

Zehazki, Leunda jauna honako batzardeetako eta sozietateetako kide eta kontseilari izendatu da:

- Gai Arrunten Batzardea
- Osoko Bilkurako Gaien Batzardea
- Ordizia Lantzen SA
- Taldeko bozeramaile
- Kontu Batzarde berezia

Galparsoro andrea ordezkaturik, eta Carlos Gonzalez Astiz jauna zinegotzi izendaturik, Osoko Bilkurako Gaien Batzardeak 2010eko maiatzaren 19an emandako aldeko irizpenarekin, honako hau onartu da:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

2009ko urriaren 22ko akordioa ondorerik gabe uztea, eta Gonzalez Astiz jaunari bueltatzea Galparsoro andreak zituen ordezkariak.



Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Idazkari andrea

Dubreuil jaunak eskatuta proposamenaren azalpena zuzendu du, bertan 2009ko urriaren 22ko akordioa indargabetzen dela ipintzen du, eta Galparsororen ordezkari hitza Gonzalez Astizek berreskuratzen dituela ipintzen du.

Idazkari andreak Dubreuil jaunari arrazoia eman dio eta "beregianatu" hitza "berreskuratu" baino egokiagoa dela azaldu du.

Proposamena zuzendu da.

Kontu-hartzailea

Kontu-hartzaileak adierazi du Gonzalez jaunaren udal Batzorde, erakunde eta elkarteetako ordezkari hitza azaldu dutela, baina Kontuen Batzorde Berezia ez dutela aipatu, eta ia urtean behin izaten bada ere, osatu behar izaten den derrigorrezko Batzorde berezia dela.

Proposamena zuzendu dute eta proposamenean "Kontuen Batzorde Berezia" sartu dute.

Proposamena

2009ko urriaren 22an, Galparsoro andreak bere karguari uko eginda, osoko bilkurak erabaki zuen Mikel Leunda jauna izendatzea, koalizioko zinegotzi bakarra izanik, azken hori ordezkatzeko bozeramaile gisa zinegotzia ordezkatu bitartean, baita Udalaren mendekoak diren batzorde eta organo edo sozietateetan ere.

Zehazki, Leunda jauna honako batzordeetako eta sozietateetako kide eta kontseilari izendatu da:

- Gai Arrunten Batzordea
- Osoko Bilkurako Gaien Batzordea
- Ordizia Lantzen SA
- Taldeko bozeramaile
- Kontu Batzorde berezia

Galparsoro andrea ordezkatuta, eta Carlos Gonzalez Astiz jauna zinegotzi izendatuta, Osoko Bilkurako Gaien Batzordeak 2010eko maiatzaren 19an emandako aldeko irizpenarekin, honako hau onartu da:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

2009ko urriaren 22ko akordioa ondorerik gabe uztea, eta Gonzalez Astiz jaunak bere gain hartzea Galparsoro andreak zituen ordezkari hitzak.

Bozketa



Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, IU/EB-ARALAR 2, PP1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Gizarte Ongizate Sailaren izena aldatzea.

Proposamena

Ordezkaritzaren izena aldatzeari Gizarte Ongizate Sailak 2010eko apirilaren 28an emandako aldeko irizpenaren berri eman da.

Puntuaren irizpenean azaldutakoaren arabera, EAJ/PNV, EA eta PSOEren legealdi-akordioan erabaki zen genero-berdintasuna lantzea. Lan horren emaitza izan zen Udalak onartutako I. Berdintasun Plana.

Bestalde, bere garaian Sailaren mende zegoen Kontsumitzaileen Informaziorako bulegoa eskualde mailakoa izatera pasa da, eta horren ardura Goiekik darama.

Hori guztia kontuan hartuta, Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordeak honako hau proposatu zuen 2010eko maiatzaren 19an egindako bilkuran:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

Ongizate Sailaren izen aldaketa onartzea eta "GIZARTE ZEBITZUAK, OSASUNA ETA BERDINTASUNA" izena ipintzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



Dubreuil jauna

Proposamenean akats bat dagoela azaldu du (gaztelerazkoan) eta proposatzen den izen berria ez da "Servicios Sociales, Sanidad e Igualdad" baizik eta "Servicios Sociales, Salud e Igualdad".

Idazkariak zuzendu egin du.

Proposamena

Ordezkaritzaren izena aldatzeari Gizarte Ongizate Sailak 2010eko apirilaren 28an emandako aldeko irizpenaren berri eman da.

Puntuaren irizpenean azaldutakoaren arabera, EAJ/PNV, EA eta PSOEn legealdi-akordioan erabaki zen genero-berdintasuna lantzea. Lan horren emaitza izan zen Udalak onartutako I. Berdintasun Plana.

Bestalde, bere garaian Sailaren mende zegoen Kontsumitzaileen Informaziorako bulegoa eskualde mailakoa izatera pasa da, eta horren ardura Goiekik darama.

Hori guztia kontuan hartuta, Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordeak honako hau proposatu zuen 2010eko maiatzaren 19an egindako bilkuran:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

Ongizate Sailaren izen aldaketa onartzea eta "GIZARTE ZEBITZUAK, OSASUNA ETA BERDINTASUNA" izena ipintzea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jaunak

Aldaketa Genero Berdintasun ikuspegiagatik eta Emakunderen aholkuengatik proposatzen da.

Gonzalez jauna

Bere taldea abstenitu egingo dela dio, berdintasun gaia lantzeko soilik sail bat egon behar duela uste dutelako.

Dubreuil jaunak

Berak ere horrela pentsatzen duela esan dio baina gaur egun Berdintasun teknikaria Gizarte Ongizate sailean dagoela esan dio eta gaia zeharkakoa dela uste du.

Bozketa egin eta gero honako emaitzak izan dira:



Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa egin eta gero honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, PP 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (IU-EB/Aralar)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- Galde-eskeak

Leunda jaunak azaldu du Erdi Aroko Azokan umeentzako arku-tiroa egon dela eta orain arte dianekin izaten zela eta aurtien animalien irudiekin egin dutela.

Berari ez zaio egokia iruditu ez zaiolako umeentzako ona iruditzen. Bere semeak berak ere animaliak benetakoak ziren galdetu zion.

Biodibertsitatearen gaiaz hitz egiten dugunean eta gaia irakasten diegunean ez diegu hori irakasten.

Barrenan bertan disekatutako oreinen buruak daude eta bere ustez horrek umeak gehiago traumatizatu ditzake.

Txurruka jaunak erantzun dio esanez bera ez dagoela ados, arku-tiraketarako bi modalitate baitaude, eta bat animaliekin da, eta errespetuz jokatzeko dela iruditzen zaio eta berak ez luke jarduera Erdi Aroko Azokatik kenduko, mantentzeko moduko modalitatea dela iruditzen baitzaio.

Leunda jaunak adierazi dio helburua arkuarekin animaliak hiltzea dela eta ez du ulertzen nola joka daitekeen umeekin horrela. Umeak animaliak hiltzen eta ehizatzen heztea gaizki iruditzen zaio.

Dubreuil jaunak

Dubreuil jaunak esan dio heziketa ikuspegitik umeek animalien aurka arkuak jaurtitzea ere ez zaiola egokia iruditzen baina okerragoa iruditzen zaizkiola pertsonen arteko hilketak. Barrenako orein buruei dagokionez, berak txikitatik ikusi dituela esan du, eta ez duela traumarik izan.



Maiza andreak hitza hartu du eta azaldu du diana bidezko arku tiraketa nahikoa iruditzen zaiola umeak jolasean ibiltzeko.

Barrenako orein buruei dagokionez, Leunda jaunari bi irakurketa izan ditzakeela azaldu dio: Bata, negatiboa, eta berak azaldu duena da, eta bestea positiboa. Positiboan buru horiek etxe horretako historiaren erakusgarri dira, nobleek zuten bizimodua erakusten dute, ehiza bezalako denborapasa eta jokoekin, eta zentzu horretan garrantzitsua iruditzen zaio.

Berari ez zaio traumatikoa iruditzen, horrek erakusten duelako garai hartako jendeak aisialdirako denbora asko zuela eta ia lanik ez zuela egiten eta hori ikasgai bat izan daiteke ume eta gazteentzako.

.....

Leunda jaunak Dubreuil jaunaren adierazpenei erantzun nahi die, komunikabide pribatu batek (Aralarko aldizkaria) zerbitzu publikoen pribatizazioez idatzi zuenean. Zeharka kudeatzen diren zerbitzuetan desberdintasunak daudela uste du, eta beraietzako negatiboa da arrazoi desberdinengatik:

- 1.Zerbitzuen kalitatea galtzen delako.
- 2.Langileen ordainsarien murrizketa.
- 3.Klientelismoa.
- 4.Prezio publikoak igotzea.

Bere ustez desberdintasunak egon, badaude. Berak ez du esan Ordizian prezio publikoa aldatu Denia, baina badauki beste toki batzuetan gertatzen dela.

Ondorio negatiboak izatea edo ez izatea, kudeaketaren araberakoa izango da: Eta adibide bat ipini du: Demagun zerbitzu baten zuzeneko kudeaketa 100 €koa izatea. 12.-€ industria-onura izango da eta %16 edo %18 BEZa. Gero 70 € geratzen dira enpresak kudeatzeko.

Honen lehenengo neurria langileen soldata murriztea izango da. Egoitzak azpikontrataturako zerbitzua ipini du adibide gisa.

Kalitate galerari dagokionez, berak ez du uste gaitasuna falta zaielako denik, baizik eta motibazioa falta zaielako, bajaran daudenak ez dituztelako ordezkatzeko etab.

Klientelismoa ere izaten da.

Kontratazioak egitean ez da langileak hautatzeko prozesurik izatean, Administrazioetan derrigorrez izaten den bezala. Lagunak eta senitartekoak sartzeko tokiak izaten dira.

Berak esandakoarekin lotuta, bi adibide daude Ordizian:

- 1.Langileen lan-baldintzak murriztea.
- 2.Zerbitzuen kalitatea galtzea.



Txurruka jaunak hitza hartu du, berari Majori dagokiolako, eta bertan ez zaio iruditzen kalitatea galtzen denik, eta bertan eskaintzen duten zerbitzuak berak dira edo gehiago dituzte eta ez dago klientelismorik. Majoriko esleipenetan ez da klientelismorik izan, baina ez du aztertuko enpresak langile bezala nor kontratazen duen.

Zeharkako kudeaketaren bidez Udalak ematen dituen zerbitzuak merkeago eskaintzen dira eta zerbitzuaren kalitatea mantentzen dela uste du.

Leunda jaunak esan dio langilearen soldata udaleko batena baino baxuagoa dela. Zerbitzua ahalik eta merkeena ematea da erronka, baina hori ezinezkoa da.

Esleipenetarako lehiaketa publikoetan beharbada ez dago klientelismorik baina enpresek kontratatzen dituzten pertsonak batzuetan ez dituzte baldintzak betetzen edo ez dute oposiziorik pasatzen Administrazioan bezala.

Txurruka jaunak uste du Majoriko langileek beti izan dutela Udaltzako hitzarmena eta ordainsari bera, baina une honetan Udalak soldata horiek guztiak eta langile guztientzako eta zerbitzu guztientzako Udaltz hitzarmena ordaintzeko gaitasuna duen, zalantza hori du.

Leunda jaunak jakinarazi dio ez badago dirurik lehentasunak ipini beharko direla.

Dubreuik jaunak azaldu du Etxez etxeko laguntza zerbitzuan esleipena egin dela eta horri pribatizazio deitzen zaiola. Bere ustez kudeaketak udalarena izaten jarraitzen du, ez dago onuradunenentzako ogalerarik baina kalitaterik ere ez da galtzen.

Bere ustez, kalitatea formazioarekin hobetzen da.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuan bajak berréala ordezkaten dira eta hori horrela dela ziur daki. Ez du entxufismoa dagoenik uste, behintzat Udaleko politikari eta lagunen aldetik.

Eguneko zentroa kudeaketa onaren beste adibide bat da. Langile guztiek sinatu zuten hitzarmen da eta horrekin jarraitzen dute.

Ez daki nola geldituko diren egoitzen, eguneko zentroyen edo etxez etxeko laguntzen eskuduntza aldaketak, beraz, ez zaio egokia iruditzen gaiari buruz hitz egiten jarraitzea, arazoak sortu daitezkeelako. Negoziazioa hastean gaia aztertuko dute.

Leunda jaunak adierazi du 100 €rekin eta esleipenik gabe behintzat enplegu gehiago sortzen duzula. Soralezko Udala ipini du adibide gisa, berak han egiten du lan, eta jakinarazi du garbiketakoek 6 orduko lana 3 ordutan egin behar dutela, esleipena garbitu beharreko azaleraren baitan egin dietelako, eta zerbitzua ez da ona.

Etxez etxeko zerbitzuan ordezkapenak egongo dira, baina beste zerbitzu batzuetan ez.

Hitzarmenak erreferentzia dira baina azpikontratutako langileen eta Administrazioako langileen hitzarmenak oso desberdinak dira. Beharbada funtzionarioek gehiegi kobratzen dute.



Berak zehazki bi entxufismo jasu ezagutzen ditu, eta bi adibide ipini ditu, BIDE LANen Rafaela Romero andrearen anaia eta Arriola jaunarena kontratatu zituzten.

Dubreuil jaunak uste du entxufismoa beti egon dela, oraindik ere badagoela eta beti egongo dela. Hala ere, entxufismoa egon daitekeela uste badu ere, Aralarrek Udaleko zeharkako zerbitzuak kritikatzeko entxufismoa erabiltzea lotsagarria iruditzen zaio. Horrez gainera, zeharkako kudeaketa kontrolatu daitekeela uste du eta kontrolatzen dira gainera, kontratatutako enpresei zenbait neurri ipinita.

Leunda jaunak artikulua berriz irakurtzeko eskatu dio eta Ordizian gertatzen dela esaten dutenaren ondorioak aztertu ahal izango ditu.

Dubreuil jaunak adierazi dio Aralarrek gobernatzen duen udaletan ere zeharkako kudeaketa erabiltzen dutela, eta Leunda jaunak egin dituen kalkuloei buruz, esan dio enpresen eta langileen gastuei buruzko datuak ez direla oso zehatzak.

Bere ustez egin duten kritika ez da oso koherentea.

Leunda jaunaren ustez Administrazioak esleipenetan gehiago ordaindu dezake, pribatizazioetako kaltetutakoak ez daitezen beti langileak izan.

.....

Gonzalez jaunak jakinarazi du mozio bat aurkeztu duela baina beste alderi politikoekin adostu nahi du hurrengo osoko bilkura egin aurretik, eta mozioa anbulatorioa larunbat goizetan ixteari buruzkoa izango da.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.